## KULTURA-JARDUERAK LASARTE-ORIAN ACTIVIDADES CULTURALES EN LASARTE-ORIA

| DATA FECHA | ORDUA HORA | EKINTZA ACTIVIDAD | ZER? ¿QUÉ? | PREZIO PRECIO |
|---|---|---|---|---|
| 01 | 20:00 | **antzerkia** teatro | **"erradikalak gara"** | 5'50 € |
| 02 | 17:00 | **haurrentzako zinea** cine infantil | **"el regalo de molly monster"** | 3'80 € |
| 02 | 19:30 | **helduentzako zinea** cine adultos | **"vivir de noche"** | 5'50 € |
| 04 | 19:30 | **musika (brijidak)** música (brígidas) | **elsa ferrer** | --- |
| 05 | 18:30 | **aurkezpena** presentación | **"sustraiak eta hegoak"** | --- |
| 07 | 22:00 | **zine forum** cine fórum | **"frantz"** (vos) | 5'50 € |
| 09 | 17:00 | **haurrentzako zinea** cine infantil | **"teresa eta galtzagorri"** | 3'80 € |
| 09 | 19:30 | **helduentzako zinea** cine adultos | **"es por tu bien"** | 5'50 € |
| 10-23 | --- | **erakusketa (merceron)** exposición (mercero) | **amasahara** | --- |
| 21 | 22:00 | **zine forum** cine fórum | **"la la land"** | 5'50 € |
| 23 | 17:00 | **haurrentzako zinea** cine infantil | **"la vida del calabacín"** | 3'80 € |
| 23 | 19:30 | **helduentzako zinea** cine adultos | **"la la land"** | 5'50 € |
| 29 | 18:00 | **haurrentzako antzerkia** teatro infantil | **"euria"** | 3'80 € |
| 30 | 17:00 | **haurrentzako zinea** cine infantil | **"los pitufos: la aldea escondida"** | 3'80 € |
| 30 | 19:30 | **helduentzako zinea** cine adultos | **"kong: la isla calavera"** | 5'50 € |

Casa de Cultura Manuel Lekuona Kultur Etxea. Geltoki 18, 20160 Lasarte-Oria · Tlf.: 943 376 181 · kultura@lasarte-oria.eus

DL: SS 1521-1998



2017 apirila abril

# kultur agenda

LASARTE-ORIA
UDALA - AYUNTAMIENTO

KULTURA ETA HEZKUNTZA
CULTURA Y EDUCACIÓN

01 LARUNBATA SÁBADO — ANTZERKIA TEATRO / AUDITORIOAN AUDITORIO

# "Erradikalak gara"

**KULTURA ETA HEZKUNTZA SAILA**
KORRIKA KULTURALA · 20:00 · 5'50 €



Gizarte honen ezaugarri bat argitzen du historiak: neurritik kanpo denak dakartza neurri gabeko fobiak moderatua behar du hitzak, borrokak nahiz euforiak. Erradikala errora doa hala dio teoriak zer dauka txarra irauli nahiak azpiko sustrai lodiak? Berrikuspen bat behar du sarri hitzen etimologiak. Beldurragatik goraipatzen da hainbeste neurritasuna aldaketari trabak jarrita mugatuz askatasuna aldarrikatzen dugun aldiro gure desadostasuna "Erradikalak zarete" bada esateko daukazuna neurria zeinek jartzen duen da dagokizun erantzuna ezer baino lehen subjektiboa da erradikaltasuna. Pribilejioak galtzeko beldur pixka bat badaukanaren begiradatik mintzo zarela ikusi dezaket garden. HIlabeteak iraun dituen sorkuntza prozesuaren emaitza bertsoz, bakarrizketaz... josia dugu, dena den, nola kritikak egiterako orduan abila zaren, etorri eta zuk baloratu hain erradikalak garen.

ANE LABAKA
BEATRIZ EGIZABAL

AURKEZPENA PRESENTACIÓN / HITZALDI ARETOAN SALA DE CONFERENCIAS — ASTEAZKENA MIÉRCOLES 05

# "Sustraiak eta hegoak"

**KULTURA ETA HEZKUNTZA SAILA**
REVISTA LASARTE-ORIA · 18:30 · Dohainik Gratis




Lasarte-Oriak beti ezaugarriren bat izan badu, bere elkarte-sarearen aberastasuna da hori, eta horrek bere inguruan sortzen duen jarduera kulturala, kirolezkoa, festazkoa, elkartasunezkoa... Udaletik pentsatzen dugu, jarduera hori hain aberatsa izanik, nolabait jaso beharra daukagula, herriko bizitzaren perspektiba gal ez dezagun. Gure inguruko udalerriek hainbat modutara egiten dute. Iruditu zaigu erarik onena elkarteei dagokien protagonismoa ematea dela, Elkarteen Urtekari bat inprimatuz. Dokumentu horretan, hala nahi duten entitate guztiek, urtean zehar izan duten jarduera islatzeko aukera izango dute, eta hartara, denek batera, aurten elkarteen bilakabidea izan denaren panoramika hori eskaini ahalko digute.

Si algo ha caracterizado siempre a Lasarte-Oria es la riqueza de su tejido asociativo y la actividad cultural, deportiva, festiva, solidaria... que éste genera a su alrededor. Desde el Ayuntamiento consideramos que esta actividad es tan rica que debemos recogerla de alguna manera para que no perdamos la perspectiva de la vida del pueblo. Municipios de nuestro alrededor lo hacen de diferentes formas. Nosotros hemos considerado que la mejor forma es dar a las asociaciones el protagonismo que les corresponde, imprimiendo un Anuario de las Asociaciones. Un documento en el que aquellas entidades que así lo deseen, puedan plasmar su actividad a lo largo del año, y todas juntas, ofrecer esa panorámica de lo que ha sido el devenir asociativo de ese año.

29 LARUNBATA SÁBADO — HAUR ANTZERKIA TEATRO INFANTIL / AUDITORIOAN AUDITORIO

# "Euria"

**KULTURA ETA HEZKUNTZA SAILA**
MARKELIÑE · 18:00 · 3'80 €




"Euria" lanak maite dugun norbait jadanik ez dagoenean gertatzen zaigunari buruz hitz egiten du. Eta zerbait aldatu dela ulertzeko eta onartzeko behar dugun denbora guztiari buruz. "Euria" lanean ur tantak daude, bi aterkirekin bizi den pertsonaia, lanabes kaxa bat, eskegitzeko gantxoak, plantxa ero bat, abesti triste baten gaineko keinu ederrak, berokia, kanpora ematen duen leihoa, oroitzapenen iratzargailua eta baita marraztutako eguzkia ere. Norbaitek, altxatzeko eta aurrera egiteko dugun gaitasunaren metafora ere ikus dezake eguzki horretan.

"Euria" habla de lo que nos pasa cuando algo o alguien a quien queremos ya no está. Y de todo ese fastidioso tiempo que necesitamos para entender y aceptar que algo ha cambiado. "Euria" está hecho con gotas de agua, un paraguas colorado, una caja de herramientas, lágrimas guardadas en los cajones, cuatro acrobacias, otro paraguas abandonado y roto, gestos bellos en una canción triste, una plancha loca, un despertador de muchos recuerdos, una ventana al exterior y un sol dibujado. Y, mezclándolo todo de manera mágica, parece que hablamos, al final, de nuestra capacidad de superación.